Herriak aisialdirako harrera zerbitzua ere eskaintzen du asteazkenetan, guztientzako irekia. Eskolako bakantzetan, Uztaritzeko herriak aisialdirako harrera zerbitzua eta gazteentzako gunea antolatzen ditu, haur eta nerabeek jostatzeko eta loratzeko jarduera ludiko eta anitzak eskaintzen dituztenak. Hezkuntza-proiektuaren jarraibideak segituz, harrera-zentro hauek lurralde proiektuari laguntzen diote haurari eta bere familiaren laguntzari dagokionez. Zerbitzu hauek aisialdi edo aurkikuntza eta atsedenaldirako momentu hezitzaileak dira, hezkuntza-asmo batetik antolatuta. Eskola, aisialdi gunea eta gazte gunea batean antolatzen dira. Harrera zentro hauek Gazteria, Konpromiso eta Kirol Saileko Zerbitzuak homologatuak dira. Indarrean dagoen legediaren arabera, haurrak udal eragile kualifikatuen esku uzten dira.

Bere seme-alabak zerbitzu desberdinetan (jantokia, eskolaz kanpoko arreta, aisialdiko arreta eta Gazte gunea) izena ematea galdegiten duen familia bakoitzak barne araudi honen puntu guztiak errespetatzeko konpromisoa hartzen du.

### **Lehen artikulua: Funtzionamendurako xedapen orokorrak**

Aisialdi guneak ez dira herriaren nahitaezko zerbitzua. Herriak, antolaketa egokitzeko, izena eman duten haurren kopurua mugatzeko edo irekiera berraztertze eskubidea gordetzen ditu, adierazitako beharren edo dauden bitartekoen arabera.

#### **1.1 Gainbegiratzea**

Haurrak zaintzen dituzten dinamizatzaileen kopurua eta kalifikazioa zerbitzu eta leku bakoitzari egokitu da indarrean dagoen araudiaren arabera. Eskolaz kanpoko eta eskolaldi inguruko harrera bakoitzerako, ikasturte hasieran erreferente bat izendatzen da. Haurren harrera egiteko beharrezko ekintzak antolatu, kudeatu eta koordinatzen ditu, horregatik familiekin komunikatzeko beharrezko ekipamendu guztiak ditu.

#### **1.2 Instalazioak**

Harrera udalak baimendutako lokaletan egingo da eskoletan, aisialdi guneetan edo egokia den edozein instalaziotan. Aisialdi taldeak antolatutako jardueren baitan, haurrei ikastetxeko eremutik edo aisialdi gunetik ateratzeko galdegiten ahalko zaie. Orduan arauzko xedapen guztiak onartu eta errespetatzen dira.

Familiek eskolaz kanpoko edo eskolaldi inguruko harreraren izena emateak eraginkortasunez ematen du lokal horietara joateko baimena.

### 1.3 Eskainitako harreraren antolaketa

#### Eskolaz kanpoko harrera goizez eta arratsaldez.

##### • Goizean ongi etorria

Etxearen eta eskolaren arteko trantsizioa ahalbidetzen duen zerbitzua da, non hurrei "harrera goxoa" sustatzeko jarduerak eskaintzen zaizkien. Eskolaz kanpoko harrera ikasturtean zehar goizez ematen da, astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan, 7:30etatik goiti.

Eskolaz kanpoko harrera Arruntzeko ikastetxean	7:30 - 8:20
Eskolaz kanpoko harrera Herauritzeko ikastetxean	7:30 - 8:20
Eskolaz kanpoko harrera Idekia ikastetxean	7:30 - 8:20
Eskolaz kanpoko harrera Louis Dassance Ikastolan	7:30 - 8:40

Goizeko 8:20ak baino lehen (8:35ak Ikastolarako) iriste oro eskolaz kanpoko zerbitzuan fakturatuko da.

Goiz iristen diren eta eskolaz kanpoko zerbitzuaz baliatu nahi ez duten familiek irakasle batek atea ireki arte goitatu beharko dute.

##### • Ongi etorria arratsean

Eskolaz kanpoko arratsaldeko harrerak eskola eta etxeko orduen arteko trantsizioa ahalbidetzen du. Animatzaileek hainbat jarduera dibertigarri eta didaktiko eskaintzen dituzte haurrak klaseetatik landa atsedean hartzeko.

Antolakuntza eta segurtasun arrazoiengatik, hurrek gutxienez 15 minutu egon beharko dute arratseko eskolaz kanpoko zerbitzuan (Idekian eta Herauritzen ateratzea 16:15etik goiti egin daiteke. Arruntzen eta Ikastolan ateratzea 16:45etik goiti egin daiteke).

Umea jasotzeko baimena duenak erregistro digitala sinatu beharko du lokaletik atera aitzin.

Bere gurasoek edo baimendutako pertsona batek jasotzen ez duen edozein haur, irakasleekin klasetik ateratzean, eskolaz kanpoko zerbitzuaren esku geldituko da, zerbitzuaren fakturazioa eraginez, 16:05etatik goiti (Idekian eta Herauritzen) eta 16:35etatik goiti (Arruntz eta Ikastolan).

Eskolaz kanpoko harrera 18:30ean bukatuko da. 5 minutu baino gehiagoko gibelapenek 5 €-ko kostu gehigarria izanen dute. Behin eta berriz errepikatzen baldin badira, idatzizko bi abisuren buruan, haurtzaindegitik kanpo uztearekin zigortuko da.

Eskolaz kanpoko harrera Herauritzeko ikastetxean	16:00 - 18:30	Ateratze posiblea 16:15etik goiti.
Eskolaz kanpoko harrera Idekia ikastetxean	16:00 - 18:30	Ateratze posiblea 16:15etik goiti.
Eskolaz kanpoko harrera Arruntz ikastetxean	16:30 - 18:30	Ateratze posiblea 16:45etik goiti.
Eskolaz kanpoko harrera Louis Dassance Ikastolan	16:30 - 18:30	Ateratze posiblea 16:45etik goiti.

## **Eskolako jangela**

Bazkaltzeko atsedenaldirian Ama-ikastolako haurren harrera AB(L)A-k eta dinamizatzaileek kudeatzen dute. Lehen mailako ikasleak dinamizatzaileek gainbegiratzen dituzte. Ateratzeak ez dira baimentzen jangelako ordutegian, salbu salbuespeneko kasuetan arduraduna abisatua baldin bada eta zerbitzuaren aurre adostasunarekin (arrazoi medikalak edo hezkuntzakoak).

Eskolako jangelan izena emana duen haur batek noizbehinka huts egitearen berri eman behar zaio haur eta gazte-zerbitzuari. Egun bereko goizeko 8ak baino lehen, azken epea (05.59.93.37.68 [/espacefamille@Ustaritz.fr](mailto:espacefamille@Ustaritz.fr)).

Jantokian jaten ez duten ikasleak 13:25etik goiti bakarrik sartzen ahalko dira eskolara, atea irekitzen denean.

Nahi duten familientzat, otordu egokituak egiten ahal zaizkie seme-alabei, txerriki eta haragirik gabe. Eskolako jangelako zerbitzuan izena ematean egin behar da eskaera.

## **Asteazken eta bakantzetako aisiadirako harrerak**

### **· Aisiadirako zentroa**

*Haurrak aisialdi zentroan errezibituak dira AMA-ESKOLAKO 1. URTEAN irailean sartzen direnetik.*

AMA-ESKOLAKO 2 URTEKO haurrak eta eskolatuak ez direnak ez dira errezibituak.

	Familien harrera	Haurren ateratzea
Goizean	7:30 eta 9:00 bitartean.	11:30 eta 12:30 bitartean.
Arratsaldean	13:00etik 14:00etara.	16:45 eta 18:30 bitartean.
Eguna	7:30 eta 9:00 artean.	16:45 eta 18:30 bitartean.

Familiek beren seme-alaben izena hainbat modutan emateko aukera dute:

- **Goizean**
- **Arratsaldean**
- **Egun osoa**

Piknik-irteera egunetan, izena egun osorako eman behar da.

Bakantzetako irteera-egunetarako izen-ematea, gutxienez 2 egun osoetan presente diren haurrentzat lehenetsiko da.

#### **Gazteen eremua**

	Gazteei harrera	Gazteen ateratzea
Asteazkena	14:00etan	18:00etan.
Bakantzetan	Etorrera posiblea 7:30 eta 9:00 artean.	18:00etan.

Piknik-irteera egunetan, izena egun osorako eman behar da.

kantzetako irteera-egunetarako izen-ematea, gutxienez 2 egun osoetan presente diren haurrentzat lehenetsiko da.

#### **1.4 Greba/eguraldi txarra**

Udal eragileen greba edo eguraldi txarra gertatuz gero, herriak zerbitzuaren funtzionamendua egokitzeko eskubidea gordetzen du,

Irakasleen greba gertatuz gero (greba-tasa % 25etik gorakoa), herriak 2008ko Abuztuaren 20ko legeak aurreikusitako gutxieneko harrera-zerbitzua ezartzen du ikastetxeetan edo herriko geletan, herriko langileek zainduta. Zerbitzu hau harrera mota bakarra da, aitzinetik izena eman-eta, ez da eguneroko fakturazioaren menpe.

#### **Bigarren artikulua – Bizi-arauak**

Garrantzitsua da bizi-arau sinple eta funtzionalak ezartzea, erabiltzaile guztiek (haurrek eta familiek) onartu, aplikatu eta errespetatu ditzaten. Haurrari bizitza kolektiboan bere lekua aurkitzea ahalbidetzen diote, nolabaiteko lasaitasun bat adierazteko eta konfiantza eta segurtasun emozional giroan talde bateko kide gisa jokatzeko.

Haurrari galdetzen zaio:

- Zuzendaritzako langileekiko errespetuzko jarrera izatea, euren kargua edozein dela ere,
- Errespetuzko jarrera ukatea beste haurrekin,
- Erabilitako materiala, altzariak eta lokalak errespetatzea.

Arau hauek betetzen ez badira, gurasoei jakinaraziko zaie eta nahitaez haurraren integrazioa sustatzeko neurri egokiak kontuan hartu beharko dira:

- Lehen abisua: ahozko abisua haurrari,
- bigarren abisua: berkokatzeko elkarrizketa haurra eta gurasoekin,
- hirugarren abisua: idatzizko prozedura eta hezkuntza-neurri egokia

## **Hirugarren artikulua – Segurtasuna, osasuna eta higiena**

### **3.1 Haurren segurtasuna**

Ama-ikastolako adina duten haurrak, iristean, aisialdi zentroko dinamizatzailer baten esku utzi beharko dira, eta ateratzean guraso-ahala duen gurasoak edo baimendutako pertsona batek hartu behar ditu, *ad hoc* informazio-orrian izendatutakoa. Segurtasun arrazoiengatik, dinamizatzailerak haurra hartzera datorren edonoren nortasuna egiaztatzeko baimena dute Nortasun Agiria galdeginez. Gurasoek edo izendatutako pertsonak haurra hartu aintzin tabletan izenpedura eman beharko du.

Egituraz kanpoko inor ez da lokalera sartzeko baimendua.

Lehen Mailan, eskolatik kanpo, haurrek, gurasoen nahiaren arabera, egitura lasai utzi ahal izango dute aldeztatik idatzizko eta sinatutako baimenarekin, baimen honen hasiera eta bukaera datak zehaztuz.

Gazteen gunera joaten diren haurrek egitura bakarrik uzten ahalko dute beraien gurasoek, izena ematerakoan, hasierako izen-emate orrian argi eta garbi baimena adierazi baldin badute.

### **3.2 Haurraren gauzen segurtasuna**

Gomendagarria da haurrari arropa eroso ematea, bere izenarekin markatua, jarduera eta jokoetan zikintzeko beldurrik ukan ez dezan.

Biziki gomendatzen da haurrak bitxirik edo baliozko objekturik ez eramatea. Debekatuta da dirua ekartzea, baita jostailu edo bildumako txartelak ere. Udalak kalte edo lapurreta gertatuz gero erantzukizun oro baztertzen du.

### **3.3 Osasuna**

Haurrek eguneratuta egon behar dute beharrezko txertoekin.

Legezko tutoreak aisialdi-zentroetako zuzendariei haurrak ospitaleratzeko baimena ematen die, haien establezimenduetan istripurik gertatuz gero. Gurasoei berehala jakinarazten zaie.

Seme-alabak tratamendu medikala hartu behar badu, medikuari jakinarazi behar zaio haurrak harrera kolektibo batean partehartzen duela, bere preskripzio medikala horren arabera molda dezan eta gertaeren berri izan dezan. Udal arduradunek ezingo diete haurrei erremediorik eman.

Iristean eri diren haurrak ez dira onartuko. Egunean zehar haur bat eritzen bada gurasoei jakinaraziko zaie. Ahalik eta azkarren bere bila etorriko direla hitzematen dute.

### **3.4 Banako Harrera Proiektua (BHaP)**

Alergiak, diabetesa edo elikadura-nahasmenduak bezalako patologia batzuk dituzten haurrak hartzeko, zerbitzuek beren osasun-egoeraren berri izatea beharrezkoa da eta haiek gainbegiratzen dituzten langileei horren berri ematea. Banako Harrera Proiektua(BHaP) garatu behar da.

BHaP baten abiatzeko, arduradunek ikastetxeko zuzendariarekin harremanetan sartu behar dute, orduan inprimaki bat emanen zaie. Agiri hori tratatzen duen medikuak edo espezialista batek bete beharko du lehenik, haurraren patologiaren arabera (egin beharreko protokoloaren preskripzioa, eremedioen preskripzioa, etab.) eta gero ikastetxeko eta Aisialdiko Harrerako zuzendariei, asteazken eta bakantzetarako, eman beharko zaie.

Bigarrenik, ikastetxeko zuzendariak antolatutako bilkuran, BHaPren antolaketa bukatuko da ikastetxeko medikuarekin, udal langileekin, irakasle eta gurasoekin gainbegiratu eta gero. Agiria, behin parte desberdinek izenpetu-eta, auzapezak barne, interesa dutenei banatuko zaie.

Segurtasun arrazoiak direla-eta, BHaP hau martxan ezarri bitartean ezinezkoa izanen da haurrak eskolako jantokian onartzea.

Janari saskiaren osaketaren ardura gurasoena da eta Eskola Bizitza zerbitzuko arduradunak emanen dien APPCC protokoloa errespetatzera behartuak dira.

Herriko Etxeak ez du erantzukizunik izanen haur batek alergia duen elikagai bat jaten baldin badu, aipatutako mekanismoen bidez alergia hori Eskola Bizitza Zerbitzuari jakinarazi ez baldin bazaio.

### **3.5 Desgaitasuna edo portaera zehatza duten haurren harrera**

Desgaitasuna duen edo portaera atipikoa duen haurraren beharrak gurasoek jakinarazi beharko dituzte izena ematerakoan, harrera horren arabera egokitu dadin.

Haurrari ezin zaio harrera egin behar diren baldintzak betetzea ezinezkoa bada. Gero, harrera hori ezinezko egiten duten elementu objektiboak azalduko zaizkie familiei. Haurrari harrera egiten bazaio, egokitzapenaldi bat eskaini ahalko zaio, pixkanakako integrazioarekin. Harrera egun osoan edo egun erdi batean ere egiten ahalko da.

### **Laugarren artikulua – Istripua, erantzukizuna eta aseguruia**

Zauri arin bat gertatuz gero, langileek lehen laguntzak emateko baimena dute (desinfekzioa, tiritu ezarri) eta zainketak erizaindegiko erregistroan idatziko dira.

Egoerak hala galdegiten badu, arduradunak larrialdi zerbitzuetara deituko du eta berehala jakinaraziko zaie gurasoei.

Istripuaren edo gertakariaren lekuko izan den agenteak idatzizko adierazpena egingo du, eta bere nagusiari bidaliko dio.

Gurasoek erantzukizun zibileko aseguru eta istripu indibidualaren bermea kontratatu behar dituzte. Zerbitzuetan izena ematean dagokion ziurtagiria galdeginen da.

Ezbeharra gertatuz gero (adibidez, 2 haur hunkituak badira), egiturako zuzendariak familiei aseguruarentzat dokumentu bat eman diezaieke. Herriko Etxeak ez du haurren harremanetarako datuak edo haien familienak komunikatzeko baimenik, aitzinetik baimenik ukan gabe.

Herriak ez ditu inolaz ere bere kargu hartuko edo ordainduko eskolaz kanpoko edo eskoladi inguruko orduetan gertatutako istripu baten ondoriozko osasun-gastuak, ezta kalte materialak, arropak, betaurrekoak, hortz-aparatuak, etab... Istripu edo gorabehera horiek guztiak familiek kontratatutako asegurantzak estali behar ditu.

## **Bosgarren artikulua – Higienea eta arropa**

Kontuan izan haurrak aisialdi gunera sasoirako eta eskaintzen diren jardueretarako arropa egokiak jantzita etorri behar direla. Umeen plazer eta garapenerako, ur, hondarra eta pintura jokoak proposatuko dira, beraz, komeni da haurrak zikintzeko beldurrik ez duten arropa simple eta praktikoezin janztea.

Arropa haurraren izenarekin markatu behar da. Herriko Etxeak galtze edo lapurketa gertatuko balitz erantzukizun oro baztertzen du.

## **Seigarren artikulua – Inskripzioak, erreserbak eta huts egiteak**

### **6.1 Izen-emateak**

Haurrak hainbat zerbitzutan onartzen dira, baldin eta haurrari segurtasunez harrera egiteko beharrezkoa den informazioa laburbiltzen duen izen-emate dozierra behar bezala betea eta izenpetua bada. Dokumentu hau webgunean eskuragarri da: [www.Ustaritz.fr](http://www.Ustaritz.fr) edo Herriko Etxeko Haur/Gazte saileko idazkaritzan.

Honako dokumentu hauek ezinbestekoak dira eta dozierrari erantsi behar zaizkio:

- CAF edo MSA familia-koziente ziurtagiria: dokumentu hau urte natural bakoitzaren hasieran edo egoera-aldaketa batean aurkeztu behar da, dozierra eta prezioa eguneratzeko (dokumentu hori ez badago gehienezko tarifa aplikatuko da)

- 750 eurotik beherako familia-kozientea duten familientzako “Denbora Libreentzat Laguntza” dokumentua (CAFek emandakoa).

- 3 hilabete baino gutxiago dituen etxebizitzaren egiaztagiria

- Erantzukizun zibileko aseguruaren egiaztagiria

- RIB eta zordunketa-baimena

Ez da inskripziorik edo berritserik onartuko aurreko urteko kontua kitatu ez bada.

Lehen izen-emate hori bukatzerakoan, familiei “Familia” ataria erabiltzeko gida eta harpidedun kodea ere emanen zaie, “familia kontua” sortu ahal izateko. Ordenagailu,



tableta edo smartphone batetik, Internetera konektatua, gailu indibidual eta seguru honi esker, eskolaz kanpoko eta eskolaldi inguruko zerbitzu ezberdinei lotutako eragiketa guztiak kudeatu ahalko dira (erreserba, baliogabetzea, fakturak ikustea, historia ikustea, etab.)

Erreserba eta baliogabetze galderak Familia atari honen bitartez egin behar dira.

Ikasturte bakoitza aitzin, dozierraren berritzea eta berraktibatzea gurasoek eguneratuko duten "familia kontuaren" bidez eginen da. Beharrezkoa izanez gero, urtean zehar, kontaktuen, harremanetarako informazioa edo egoeraren edozein aldaketa jakinaraztea onartuko du familiak.

## 6.2. Erreserbak eta baliogabetzeak

Zerbitzu desberdinetarako erreserba guztiak Herriko Etxearen Familia Atariaren bidez egin behar dira <https://portail.berger-levrault.fr/MairieUztaritze64480/accueil> helbidean.

Erreserba hauek egin daitezke:

- urtero, ohiko aste batean oinarrituz (adibidez: astelehen eta ostegunero jangelarako). Kasu honetan, abian den ikasturteak irauten duen bitartean baliagarri izanen dira,
- edo puntualki.

Aldaketak modu independentean egin daitezke metodo hauen arabera:

Zerbitzua	Erreserba egiteko epeak	Ezeztapenak
Eskolako jangela	08:00ak baino lehen, bezperako lanegunear berantenez	08:00ak baino lehen, bezperako lanegunear berantenez
Eskola kanpoko harrera	Bezperako laneguna aintzin beranduenez, goizeko 8:00ak baino lehen.	Bezperako laneguna aintzin beranduenez, goizeko 8:00ak baino lehen.
Goizeta arratsaldez		
Aisialdi zentroa:	Aipatutako astearen aitzineko ostirala baino lehen, 08:00ak baino lehen.	Aipatutako astearen aitzineko ostirala baino lehen, 08:00ak baino lehen.
Asteazkenetarako		
Aisialdirako harrera:	Bakantzak hasi aitzineko asteko astelehen goizean (adibidez: urriaren 16an, astelehena, urriaren 23tik azaroaren 3ra arteko bakantzentzat)	Beranduenez, aipatutako astearen aurreko astelehena, 08:00ak baino lehen. (adibidez: urriaren 23a, astelehena, urriaren 30etik azaroaren 2ra, ostirala, doan asteko egun bati dagokion deuseztapenagatik).
Bakantza ttipientzat		
Aisialdi zentroa:	Ekainaren hasieran: Familia atarian eta Uztaritzeko herrikoko webgunean	Beranduenez, aipatutako astearen aurreko astelehena, 08:00ak baino lehen.
Udarako		

	zehaztuko da eguna. Familia guztiei agiri bat bidaliko zaie izena emateko datorren abiatzea iragartzeko.	(adibidez: astelehena, uztailak 6, uztailaren 13tik ostiralera, uztailaren 17ra doanasteko egun bati dagokion baliogabetze batengatik)
Gazte gunea: Asteazkenetarako	Aipatutako astearen aitzineko ostirala baino lehen, 08:00ak baino lehen.	Berantenez, aipatutako astearen aitzineko astelehena, 08:00ak baino lehen.
Gazte gunea: Bakantza ttipietarako	Bakantzak hasi aitzineko asteko astelehen goizean (adibidez: urriaren 16an, astelehena, urriaren 23tik azaroaren 3ra doazten bakantzetan)	Bezpera arte, 16:00etan.
Gazte gunea: Udarako	Bakantzak hasi aitzineko asteko astelehen goizean (adibidez: urriaren 16an, astelehena, urriaren 23tik azaroaren 3ra doazten bakantzetan)	Bezpera arte, 16:00etan.

Eskolaz kanpoko harreran lehenagotik erreserbarik gabe harrera egingen zaien haurren presentzia % 50eko gehikuntzarekin fakturatuko da. Ezarritako prozeduraren arabera ezeztatu gabeko erreserbak fakturatuko dira. Eskolaz kanpoko jardueren kasuan, ezeztatu gabeko erreserbak lehen ordu erdiaren arabera fakturatuko dira. Erreserbarik ez duten haurrak ez dira aisialdi zentroan eta gazte gunean onartuak.

### **6.3 Faltak eta berandutzeak**

Baliozkotu ondoren, erabilgarritasunaren arabera, izen-ematea erreserba irmo gisa erregistratzen da eta fakturatuko da. Salbu, goian adierazitako epeetan, baliogabetzea egiten bada edo Haur eta Gazteria Zerbitzura bidali behar den mediku-ziurtagiria edo familia-larrialdiaren egiaztatzea aurkezten bada hurrengo 3 egunetan.

Xedapen honek behar bezala baliogabetutako lekuak berriz erabilgarri izateko aukera eman nahi die eskaerak bete ezin izan dituzten eta itxaron zerrendan dauden familiei.

Ikastetxeko jangelarako, ez dira baliogabetzeko agiriak onartzen, erreserba irmoa baita goizeko 8:00ak baino lehen bertan behera uzten ez bada.

Egituren funtzionamendu egokia lortzeko, ireki eta hersteako orduak errespetatzea galdegiten zaie familiei.

Beranta ukanez gero, gurasoei animazio taldeari lehenbailehen telefonoz jakinaraztea galdegiten zaie, urte hastapenean emandako mugikor zenbakira.

30 minuturen buruan, herriko langileek ezin izan badute gurasoekin harremanetan sartu, hainbat saiakera egin eta gero, haurra autoritateen esku uzten ahalko da (Jendarmeria).

Arratseko aisialdirako harrera eta asteazken eta bakantzen eskolaz kanpoko harrera 18:30ean bukatzen da. Ezinbesteko kasuengatik justifikatzen ez diren 5 minututik gorako berantak 5 €-ko kostu gehigarria ekarriko du. Gehiegi errepikatzen den berandutze oro aisialditik edo eskolaz kanpoko harreratik kanpo uztearekin zigortuko da, idatzizko bi ohartarazpenen ondotik.

## **Zazpigarren artikulua – Prezioa-ordaintzea**

### **7.1 prezioak**

Zerbitzu hauek Herriko Kontseiluak deliberatuz finkatutako prezioen menpe daude. Prezio hori hilabete-saria, familia osaera eta CAFek familiei transmititzen dien familia-kozientean oinarritzen da. Prezioa egokitzeko, familiek familia-koziente hori Haur eta Gazte zerbitzura bidali beharko dute

Fakturak ez ordaintzeak izen-emateak eta erresebak blokeatzea eragin dezake.

Erabiltzaileak fakturazio-akatsen bat hautematen badu, dagokion fakturaren ordainketa-epea baino lehen zerbitzuekin harremanetan sartzeko galdegiten zaio.

### **7.2 Ordainketa modua**

Fakturak horrela ordaindu daitezke:

Zordunketa: RIB eta zordunketa baimena eman behar da. Nolanahi ere, bi fakturen zordunketa automatikoari uko egiten bazaio segidan, ordaintzeko bide hori erabiltzea ezinezkoa izanen da ikasturte hau bukatu arte.

Txekea («Ogasun Publikoari» ordaindu beharrekoa), Bakantzetarako txekea edo CESU, postaz bidalia edo eskuz emana helbide honetan: Service de Gestion Comptable Côte Basque. Chauvin Dragon karrika 17, 64 502 DONIBANE LOHITZUNE CEDEX

## **Zortzigarren artikulua - egituraren jarduerak**

Herriak garatzen eta aldian-aldian eguneratzen du lurralde hezkuntza proiektua (PEDT), honek aplikatutako hezkuntza-jarraibide nagusiak finkatzen ditu (dokumentua [www.Ustaritz.fr](http://www.Ustaritz.fr)

webgunean eskuragarri).

Proiektu Pedagogikoa hezkuntza proiektua egiteko baldintzak zehazten dituen dokumentua da. Hautetsien ardurapean garatzen da, aisialdirako harrera zuzendariak, bere dinamizatzaile taldearekin kontsultatu eta gero. Eskaintzen diren jardueren izaera bertan zehazten da, izan kirol jarduerak, kulturalak, sormenezkoak... eta haien hezkuntza helburuak. Horri esker, aisialdi une desberdinei zein eguneroko bizitzako ekintzei (otorduak, siesta, askaria) zentzua ematen diegu.

Uretako jardueretarako (surfa, kayaka, piraguismoa, paddle...) nahitaezkoa da uretako erosotasun ziurtagiria aurkeztea, haurraren izenean eta sorosle homologatu batek

egiaztatua. Igerilekuan emana da. Familiek desmartxa pertsonal hau beren seme-alabekin burutu behar dute edozein praktika egin aitzin.

Jarduerak haurren gaitasun eta beharretara egokituak dira adinaren arabera. Ahal den neurrian, haurren hautua beti kontutan hartzen da.

Ordutegiak familia espazioaren webgunean kontsulta daitezke.

## **Bederatzigarren artikulua – Irudi-eskubideak**

Gerta daiteke Haur eta Gazteentzako zerbitzuak eskaintzen dituen jardueretan haurrak argazkitan ateratzea edo filmatzea.

Gurasoek idatziz desadostasuna jakinarazi ezean, zerbitzuak argazkiak edo bideoak erabiltzeko eskubidea gordetzen du udal-komunikaziorako edo herriko bizitzarekin zerikusia duten ekitaldien harira argitaratutako edozein informaziorako.

## **Hamargarren artikulua – Araudiaren aplikazioa:**

Aipatutako zerbitzuetan izen emateak eta erabilerak araudi honetan xedatutakoa guztiz betetzea dakar. Herriak araudi hau aldatzeko eskubidea gordetzen du, zerbitzuaren beharren eta indarrean dauden lege eta arau-xedapenen bilakaeraren arabera.


**Auzapezordea**  
**Gazteria Politika- Hezkuntza- Formakuntza**  
**arduraduna,**

**Françoise GALLOIS**



**Auzapeza,**

**Bruno CARRERE**



*Pirinio Atlantikoetako Familien Laguntza Kutxak egitura hau zerbitzu- eta diru-laguntzen bidez finantzatzen du*

